

2.

HIRIA



2. Hiria

Iruñeak hainbat urte daramatza bizi-kalitateko adierazlerik hoberenak dituzten espainiar hiriburuetan sailkatuta. Haren hazkundea ordenatua izan da, berdegune zabalak ditu, eta eskaintza unibertsitario zabala zein kalitatezko osasun sistema ditu; faktore horiek, beste askoren artean, hiri abegitsua bilakatu dute, non herritarren ahetasuna eta ongizatea handiak baitira. Bestalde, hiri ongi hornitua da, kirolerako, kulturarako, hezkuntzarako eta gizarte-laguntzarako. Eta horren guztiaren osagarri dira kaleetako segurtasun-maila handia, Espainiako langabezia-portzentajerik txikienetakoa, Europar Batasuneko herrialde aurreratuenetakoen pareko per capita errenta eta etxebizitzaren eraikuntzako kalitate handia.

Hiri berdea. Parke eta lorategiek hiriko azaleraren % 20 hartzen dute, Iruñean. 250 arbola-espezietik gora daude, Arga ibaiaren parkean, Zitudadelan, Gaztelugibelen, Taconeran, Yamaguchin, unibertsitateetan edo Buztintxurin. Iruñeak, bestalde, konpromisoa hartua du garapen iraunkorraren alde. Horren erakusle dira hainbat ekimen: Arga ibaiaren pasealekuaren moldaketa, panel fotovoltaiaren instalazioa ikastetxeetan, bizikletak alokatzeko udal-zerbitzua, kontsumo txikiko hiri-argiteria, 61 kilometroko bidegorria edo gurgipen pneumatiko birziklatuz egindako zoladurak. Abangoardiako hiria, osasungintzaren arloan Osasun-

langileen prestakuntzak eta ospitaleetako ekipamenduak erreferentzia bilakatu dute Iruña, Espainian. Nafarroako Ospitalean abangoardiako ebakuntza kirurgikoak egiten dituzte. Bertan da, baita ere, Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroa. Horrek Foru Erkidegoko ospitaleak hornitze ditu. Bideko Ama Birjina ospitalean ama eta haurren zerbitzua dago. Erietxe Unibertsitarioak ospea du nazioartean, eta aitzindaria da medikuntza-aurrerabideetan. Bestalde, Ikerketa Mediko Aplikatuaren Zentroak (CIMA) ikerketa erabilpen klinikora hurbiltzen du, eta industria farmazeutikoarekin aritzen da elkarlanean, sendagai berriak garatzeko. Iruñetik 10 kilometrora, Elkanon, Ubarmin erietxea dago, traumatologian eta errehabilitazioan espezializatua. Horrez gain, auzo guztiek osasun etxea dute, eta horrenbestez oinarritzako laguntza bermatua dute herritarrek orok.

Hiri unibertsitaria. Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Nafarroako Unibertsitateak eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko zentro elkartuak ia 30.000 ikasle unibertsitario biltzen dituzte ikasturtero, existitzen diren unibertsitate-titulazio gehienak ematen dituztelarik. Horrek guztiak Iruña biltzarren eta bilkura akademikoen egoitza bilakatzen du, ikerketa eta topaketa zientifikoak bultzatzen ditu eta, batez ere, herritarren hezkuntza-maila handitzen du. Hiri solidarioa. Behartsuenendako laguntza hiriko auzo



> Merindadeen plazako iturriko ura, gorritz tintatuta, Mugikortasunaren Astea dela-eta.



guztietan barna kokaturik dauden auzo-unitateen sarearen bitartez bideratzen da. Sare horretan, laguntza ematen zaie haien egoera pertsonala, familiarra edota soziala medio arreta berezia behar duten pertsonen. Horrez gain, Udalak baliabideak ditu, herritarretan behar bereziak dituzten multzo jakin batzuei laguntza emateko, hala nola minusbaliatuei, etxerik gabekoei, etorkinei eta bakarrik bizi diren adinekoei.

Hiri abegikorra. Iruñeak ia 200.000 biztanle ditu. Azken urteotan, Espainiako hiri askotan bezala, nabarmen hazten ari da etorkinen portzentajea. Hartara, 1996. urtean 3.126 ziren beste herrialde batean sortu eta Iruñean bizi ziren pertsonak. 2000. urtean 9.717 pertsona zeuden egoera horretan, eta 2009. urtean, ordea, 25.211 dira. Hau da, egun, Iruñean bizi direnen % 12,66 etorkinak dira. Erroldaturik dauden etorkinetan, ekuadortarrek, kolonbiarrek, bulgariarrek, perutarrek, boliviarrak, errumaniarrek, portugaldarrek eta marokoarrek 1.000 biztanletik gorako multzoak osatzen dituzte. Etorkinen ehunekorik handiena Buztintxurin (% 25), Milagrosan (% 20,2), Etxabakoitzan (% 19,9), Sanduzelain (% 17) eta Alde Zaharrean daude (% 15,2); etorkinen ehunekorik txikienak, berriz, Mendillorin (% 5,7), Iturraman (% 8,6) eta Ermitagaña-Mendebaldean (% 8,9) daude.

Kultur hiria. Iruñearen aurkezpena osatzeko, kulturaren, aisiaren eta denbora librearen esparruetan duen eskaintza zabala aipatu behar da: 130 instalaziotik gora, publikoak nahiz pribatuak. Aipagarri dira, baita ere, bertako azpiegitura eta komunikazio onak, bertako kaleak, interes historiko-artistikoko eraikinez beteak, bertako gastronomia, bertako festak -nazioarte-mailako ospea duten Sanferminak- eta bertako paisaien aberastasuna. Iruñeko Udalak, horrekin konformatu beharrean, erronka berriei heldu die hala nola teknologia berrien erabilera herritar guztien eskura paratzea, Iruñearen irudi turistikoa sustatzea -Espainian zein nazioartean-, herritarren partaidetza bultzatzea eta ekipamenduak lortzeari ekitea, beraietan abangoardiako azpiegiturak egokitzeko, edo 2016. urtean Europako kultur hiriburua izenda dezaten lan egitea.

Iruña, Donejakue Bideko derrigorrezko etapa izateaz gain, ederra da, tradizionala eta modernoa, dinamikoa, orekatua eta kultua. Hiri pribilegiatua, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko prest dena.



2. Hiria

2.1. Biztanleria

Azken bost urteotako demografia-hazkundera txikia izan da, 1.400 lagun inguru hazi baita. Hazkunde demografiko horretan zeresanik izan dute hala hazkunde begetatiboak nola immigrazioak. Baina, Iruñeko hainbat biztanle ere kanpora joan dira bizitzera; Iruñerriko beste herri batzuetara, nagusiki. Hiriaren hazkundera, beraz, prozesu horien guztien emaitza da.

Iruñeko biztanleen sexu-proportzioa egonkor da aspaldidanik, eta hala segitu du azken urteotan. Emakume gehiago dago gizon baino, baina, betiere, parametro arruntak gainditu gabe. Adinen arabera multzoek ere egonkor segitu dute azken urteotan; halere, 15-64 urte bitarteko multzoak pixkanaka egin du behera, eta 65 urtetik gorakoek, berriz, pixkanaka egin dute gora.

Gazte-tasak (15-29 urte) behera egin du azken urteotan, nahiz etorkin gehienak gazte diren, 20 eta 45 urte bitartekoak, alegia. Gazte-tasak behera egiteko arrazoia jaiotza-tasan beherakada handia izan zuten adin-kohorteen lerratzean datza. Izan ere, jaiotza-tasaren beherakadak bi hamarraldi iraun zuen, 1980tik 2000ra.

Mendekotasun-tasek egonkor segitu dute azken urteotan, hamarreneko bat egiten baitute gora bi urtez behin. Biztanleriaren egoera ezagutzeko beste adierazle garrantzitsu bat zahartze-indizea dugu, horrek 65 urtetik gorakoek eta 15 urtetik beherakoek arteko proportzioa ezartzen baitu. Orain Iruñean 65 urtetik gorako 1,4 lagun dago, 15 urtetik beherako lagun bakoitzeko; hau da, zahar gehiago daude, haur baino. Eta biztanleriak zahartzeko joera erakusten du. Bitxikeria gisa, azken urteotan jende asko iritsi da ehun urte betetzera. 2005ean, 164 lagun ziren ehun urtetik gorakoak, eta 2009an, 67.

Demografia-datuak aztertzerakoan, ezinbestekoa da immigrazioa aipatzea. Azken hamarraldian, etorkin asko etorri dira atzerritik Espainiara, Nafarroara, eta, horrenbestez, Iruñera ere bai. Orain, 25.201 atzerritar daude eroldaturik Iruñean; hau da, Iruñeko biztanleen % 12,6. Iruñean, 125 herrialdeetako pertsonak bizi dira, eta haien artean nagusi dira Hego Amerikatik, Europako Ekialdetik eta Afrikatik etorritakoak. Orain arte, etorkinen kopuruari eutsi zaio, baina pentsatzekoa da oraingo krisialdi ekonomikoak eragina izanen duela etorreraren erritmoan. Eta, aurrerantzean, beste datu bat aztertu beharko da immigrazioari dagokionez; hots, nazionalizazio-prozesua.



> Karlos III.aren etorbidea hiriko erdigunean dauden oinezkoendako guneetako bat da.



IRUÑEKO DEMOGRAFIA ADIERAZLEAK, URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31N NEURTUTA

Adierazleak	2005	2007	2009
Gizonak / Guztizkoaren %	94.598/% 47,9	95.078/% 48	95.183/% 47,88
Emakumeak / Guztizkoaren %	102.759/% 52,1	103.083/% 52	103.576/% 52,11
0-14 urteko biztanleak / Guztizkoaren %	26.387/% 13,37	26.514/% 13,38	27.243/% 13,70
15-64 urteko biztanleak / Guztizkoaren %	135.526/% 68,67	135.366/% 68,31	133.683/% 67,25
65 urtetik gorako biztanleak / Guztizkoaren %	35.444/% 17,95	36.281/% 18,30	37.748/% 18,99
Gazte-tasa *	37.597/% 19,05	35.950/% 18,14	34.078/% 17,14
Mendekotasun-tasa (%) **	% 0,45	% 0,46	% 0,47
Zahartze-indizea ***	% 1,34	% 1,36	% 1,07
Atzerritarrak / Guztizkoaren %	21.566/% 10,92	23.991/% 12,10	25.211/% 12,68
Populazioa, guztira	197.357	198.161	198.759

* 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, biztanleria osoan

** 65 urtetik gorakoak + 14 urtetik beherakoak, 15 eta 64 urte bitartekoen aldean

*** 65 urtetik gorakoak / 14 urtetik beherakoak

*Iruñean, 125 herrialdetako
pertsonak bizi dira, eta
haien artean nagusi dira
Hego Amerikatik, Europako
Ekialdetik eta Afrikatik
etorritakoak.*

65 URTETIK GORAKOAK

Urtea	Gizonak	Emakumeak
2005	% 39,5	% 60,5
2006	% 39,6	% 60,4
2007	% 39,7	% 60,3
2008	% 40,2	% 59,7
2009	% 40,19	% 59,80

100 URTETIK GORAKOAK

Urtea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2005	30	134	164
2006	22	93	115
2007	18	72	90
2008	9	56	65
2009	11	56	67

2. Hiria

2.2. Ekonomia-jarduna eta enplegua

2.2.1. Ekonomia

Nafarroa izan zen atzeralditik atera zen lehendabiziko autonomia-erkidegoa, 2009ko hirugarren hiruhilekoan (aurreko hiru hiruhilekoetan hazkundera negatiboa izan ondoren), bai eta indarrik handienarekin atera dena ere, % 0,5 hazi baitzen. Datu hori laugarren hiruhilekoan berretsi zen, ekonomia berriz ere hazi baitzen: % 0,1, zehazki. Adierazle nagusiek, gainera, (hau da, industria-ekoizpenaren indizeak, zerbitzuen sektoreko jardueraren indizeak, txikizkako merkataritzak, herrilaren lizitazio ofizialak...) erakusten dute ekonomiaren susperraldia finkatu dela.

Alde ederra dago Nafarroako datuen eta Espainia osoko ekonomiaren datuen artean, Espainia osoko ekonomiaren BPGk berriz ere behera egin baitzuen 2009ko laugarren hiruhilekoan: % 0,1, zehazki. Beraz, hurrenez hurreneko zazpi hiruhilekotan behera egin zuen, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera. Horrela, Foru Komunitatearen barne-produktu gordina (BPG) Espainia osokoa baino puntu bat gorago dago, hamarraldi osoan

izan den alderik handiena. Nafarroa 2008an hasi zitzaion Espainia osoko ekonomiari aurreratzen (7 hamarren) eta 2009an 1,1 puntuko aldera iritsi zen. 2009aren bukaeran, Nafarroan suspertu egin zen BPGren urtearteko aldaketaren tasa % -1,9ra arte, aurreko denboraldiaren % -2,9ren eta urte bereko bigarren hiruhilabetearen % -3,2ren aldean. Espainian, BPGren urtearteko tasa % 1,2 gehiago erori da Nafarroan baino eta % -3,1era iritsi da.

Nafarroako ekonomiaren egoera Espainiakoa baino hobea izan da krisi ekonomikoan, eta horrek lan-merkatuan ere badu eragina. Horrela, 2007tik 2009ra arteko Biztanleria Aktiboaren Inkestak erakusten du langabeziaren bilakaera desberdina izan dela Nafarroan eta Espainia osoan. Izan ere, 2007ko laugarren hiruhilekoan, Espainiako langabezia-tasaren batezbestekoa % 4,33 handiagoa zen Nafarroakoa baino, eta 2009. urtearen amaieran, Espainiako langabezia-tasa Foru Komunitatekoa baino % 8,30 handiagoa da.

JEZen alta emandako jarduerak	2005	2006	2007	2008	2009
INDUSTRIA					
> Erauzketa eta transformazioa	173	172	172	152	139
> Manufaktura-enpresak	356	336	321	310	284
> Elektrizitatea, gasa eta ura (ekoizpena eta banaketa)	18	18	18	21	20
ERAIKUNTZA					
> Eraikuntza	2.117	2.259	2.474	2.173	1.885
ZERBITZUAK					
> Handizkako merkataritza	489	474	469	447	425
> Txikizkako merkataritza*	4.877	4.768	4.693	4.647	2.061
> Ostalaritza: jatetxeak, kafetegiak eta tabernak	1.055	1.081	1.077	1.087	1.091
> Garraioa eta komunikazioak	1.117	1.172	1.118	1.058	1.001
> Finantza-erakundeak	251	264	263	252	261
> Higiezinaren arloko jarduerak	609	666	678	634	584
> Hezkuntza	198	202	204	198	195
> Osasun-jarduerak	134	141	142	148	148
> Profesional eta artisten lizentziak	3.613	3.555	3.517	3.529	3.417
Guztira	15.007	15.108	15.146	14.656	11.511

* Sail horretan ez dira sartzen apaindegiak, ikuztegiak, tindategiak eta abar -halakoak ez baitira, hertsiki hartuta, merkataritza-jarduerak-, ezta merkataritza mistoa zein azalera handietakoa, prezioanitzeko bazarrak edota hipermerkatuak.



Eraikitako etxebizitzak, emandako lizentzien arabera

	2005	2006	2007	2008	2009
Eraikinetan	749	545	811	159	55
Familia bakarreko etxebizitzetan	22	15	14	3	13
Guztira	771	560	825	162	68



> Landabengo industrialdea.

Proiektatzeko moduak

2. Hiria

> Ostalaritza-eskaintza

2009an, ostalaritza-eskaintza 80 ohetan handitu da, 6 establezimendu berri sortu baitira. Iruñean, egun, 17 hotel daude, eta 2.385 ohe, guztira; 9 ostatu, 150 oherekin; 42 ostatu-etxe, 457 oherekin; 10 turismo-bizitoki, 464 oherekin. Horrez gain, Donejakue Bideko aterpetxe bat ere badago, 32 ohez hornitua (Paderborn eta Jesus eta Mariaren aterpetxez gain, ez baitute ostalaritza-ekipamenduaren izaera). Eskaintza handitu da, hainbat establezimendu ireki direlako: lau izarreko hotel bat, ostatu bat, 6 turismo-bizitoki eta Donejakue Bideko aterpetxe bat. Iruñeko Udalaren Turismo Behatokiak 2009an 1.800 bisitariri egindako inkestaren arabera, aipatu ostalaritza-baliabideen harrera eta kalitatea hobekien puntuaturiko alderdiak izan ziren.

> Ostalaritza-okupazioa

2009an, hiriko ostalaritza-establezimenduetan emandako gauak 480.790 izan ziren, INEren datuen arabera (Iruñeko Turismo Lojamenduen Okupazioari buruzko Inkestan jasotako datuak); beraz, jaitsiera txikiagoa izan zen 2008ko datuen aldean, eta 14.685 gau-igarotze gutxiago 2007. urtearen aldean. Batez beste, Espainiatik eta atzeritik heldu diren 1.317 lagunek igarotzen dute gaua egunero gure hirian.

Okupatzaileak	2007	2008	2009
Espainiarrak	376.404	372.436	372.004
Atzeritarrak	119.071	110.123	108.786
Guztira	495.475	482.559	480.790

Ostatu-establezimenduak	2005		2006		2007		2008		2009	
	Establez. kop.	Toki kop.	Establez. kop.	Toki kop.	Establez. kop.	Toki kop.	Establez. kop.	Toki kop.	Establez. kop.	Toki kop.
5 izar	–	–	–	–	1	87	1	87	1	87
4 izar	3	913	3	913	3	913	3	913	4	965
5 izar	9	1.210	9	1.210	9	1.210	9	1.210	9	1.210
2 izar	2	101	2	101	2	101	2	101	2	101
1 izar	1	22	1	22	1	22	1	22	1	22
HOTELEN KOPURUA, GUZTIRA	15	2.246	15	2.246	16	2.333	16	2.333	17	2.385
> HsG	7	123	7	123	7	123	8	134	9	150
OSTATUAK, GUZTIRA	7	123	7	123	7	123	8	134	9	150
> P**	10	127	10	127	10	127	10	127	7	86
> P*	30	336	30	336	31	345	35	375	35	371
OSTATU-ETXEAK, GUZTIRA	40	463	40	463	41	472	45	498	42	457
> 3. klasekoak (giltza 1)	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–
> 2. klaseak (2 giltza)	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–
> 1. klasekoak (3 giltza)	3	439	3	439	3	439	4	443	10	464
TURISMO APART., GUZTIRA	3	439	3	439	3	439	4	443	10	464
Donejakue Bideko aterpetxea (1. kategoria)	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–
Donejakue Bideko aterpetxea (2. kategoria)	–	–	–	–	–	–	–	–	1	32
ATERPETXEAK, GUZTIRA	–	–	–	–	–	–	–	–	1	32
Ostatu-establezimenduak, guztira	65	3.271	65	3.271	67	3.367	73	3.408	1	3.488



> Tren-geltokia.

> Bidaiariak

Urtea	Bidaiari kopurua
2007	220.174
2008	218.865
2009	221.463

> Enpresak sortzea

	2008	2009
Sortutako enpresak	56	25
Inbertsioa (milaka eurotan)	7.038.915	928.901

> Iruñean egoitza duten enpresak, ekoizpen-sektorearen arabera

Sektorea	2008	2009
Industria	704	783
Eraikuntza	2.099	1.634
Merkataritza	3.562	3.278
Ostalaritza	991	944
Finantza- eta enpresa-zerbitzuak	5.476	5.352
Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak	2.137	2.155
Beste hainbat zerbitzu	993	941
Jarduna ez dago jasota		22
Guztira	15.962	15.109

> 50etik gora langile dituzten Iruñeko enpresak, jarduera-sektorearen arabera

Jarduera-sektorea	Enpresa kopurua
Industria	25
Eraikuntza	16
Merkataritza	13
Ostalaritza	10
Finantza- eta enpresa-zerbitzuak	36
Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak	48
Beste hainbat zerbitzu	7
Guztira	155

2. Hiria

2.2.2. Lan-merkatua

Krisiaren eraginez, enpleguak galdu egin dira eta, horren ondorioz, langabeziak gora jo du. 2009aren bukaeran, 13.257 langabe ziren Iruñean (6.733 gizon eta 6.524 emakume), hau da, 2008an baino 3.384 langabe gehiago. Langabeziaren gorakadak gehiago ukitu zituen gizonak

emakumeak baino, eta sektore guztiak jo zituen, baina bereziki, eraikuntza, industria eta nekazaritza. Adinei dagokienez, langabe-tasa handienak 20 eta 29 urte bitarteko jendeari dagozkie.

> Langabeziaren bilakaera

ABENDUAREN 31N ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA-TASA

Urtea	Nekazaritza eta arrantza	Eraikuntza	Industria	Jarduerarik gabeko sektorea	Zerbitzuak	Guztira
2005	69	733	1.276	479	5.664	8.221
2006	64	742	1.131	389	5.488	7.814
2007	59	789	1.059	373	5.537	7.817
2008	112	1.578	1.680	417	7.414	11.201
2009	144	1.982	1.947	557	8.627	13.257

> Enpleguaren bilakaera, sektoreka

KONTRATUAK, ABENDUAREN 31N

Urtea	Nekazaritza eta arrantza	Eraikuntza	Industria	Zerbitzuak	Guztira
2005	307	8.504	5.346	84.358	98.515
2006	324	8.832	5.927	79.927	95.010
2007	230	8.006	5.375	82.564	96.175
2008	371	5.824	5.839	72.453	84.487
2009	213	5.347	4.176	60.999	70.735



> Arrotxapea auzoaren parte bat



> Jarduera eta langabezia tasak, sexuaren eta adinaren arabera

Iruñean, 2009ko abenduaren 31n, 70.753 aktibo dira; hau da, 16 urtetik gorako biztanleriaren % 53,61 (131.940). Haietatik, 28.915 gizonezkoak izan ziren eta, 41.820 emakumeak; jarduera-tasa, hurrenez hurren, % 21,9 eta % 31,69 izan zen. Bestalde, 13.257 langabe ziren; hau da, 16 urtetik gorako biztanleriaren % 10.

Adina	2009. urtea					
				Jarduera-tasa		Langabezia-tasa
	Gizonak	EMAKUMEAK	Guztira	Gizonak	EMAKUMEAK	Guztira
16-19	1.709	2.161	5,4%	164	123	2,1%
20-24	6.226	8.652	21%	624	500	8,5%
25-29	6.026	7.751	19,5%	982	849	13,9%
30-34	4.949	6.210	15,8%	1.056	912	14,9%
35-39	3.580	4.845	11,9%	962	865	13,8%
40-44	2.758	4.405	10,1%	862	770	12,3%
45-49	1.630	3.709	7,5%	670	608	9,7%
50-54	1.182	2.650	5,4%	533	670	9%
55-59	468	977	2,4%	514	780	9,8%
>59	387	460	1,1%	366	447	6%
Total	28.915	41.820	100%	6.733	6.524	100%

